BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1559

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 22koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2, 132 kV-ko linea elektrikoa aldatzeko proiektua, zehazki, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U.k sustatutakoa, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduratik ez pasatzea erabakitzen duena.

2012ko otsailaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzak honako dokumentua bidali zion Ingurumen Sailburuordetzari: Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U.k aurkeztutako ingurumen-dokumentua; zehazki, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Antzuola, Bergara eta Elorrioko udal mugarteetan, Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2, 132 kV-ko linea elektrikoa aldatzeari buruzkoa, eta horren helburua hauxe zen: ebaztea ia aipatu aldaketa pasatu behar zen ala ez ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduratik, hartarako ebazpena ematea ingurumen-organoaren esku uzten zelarik.

1966tik datorren lehendiko instalazioa eguneratu eta modernizatzeko helburua du proiektuak; hartara, mantenimedu-baldintzak hobetu egingo dira. Hortaz, 27 euskarri ordeztea planteatzen da, izan ere, erabilpen-epea bukatzear dute-eta; eta horretaz gain, dagoen linea elektrikoaren trazaketaren aldaketa puntual batzuk ere egin nahi dira.

Hona hemen hizpide dugun proiektua osatzen duten jarduerak:

● (DC) Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2, 132 kV-ko linea elektrikoan egingo dira lanak; eta, linea elektrikoan zehar segitukoak ez diren tarteetan, kablezko eroalearen 9.592 m ordeztea aurreikusten da, hartarako, 2eCBN, AN21 eta 2A motako 27 euskarri erabiliaz guztira. Zehazki, honako euskarriak ordeztuko dira: 4, 5, 7, 17, 20, 40, 41, 42, 48, 50, 50.1N, 51, 53, 54, 55, 55.1N, 56, 59, 60, 61, 63, 66, 67, 89, 90, 91 eta 4 (Mondragoeko adarra).

● 27 euskarriak eraikitzeak 2.000 m^2 hartuko ditu, era iraunkorrean; eta horri, aldi baterako okupatuko diren 1.000 m^2 gehitu behar zaizkio euskarri bakoitzeko, hain justu ere eraikitze-lanetarako erabiltzeko (lanerako landak). Bestalde, euskarrien muntaketa egiteko, behin-behinean okupatu beharko da materialak eta makinaria pilatzeko plataformatarako azalera bat; eta horren ondorioz, euskarriak eraikitzeko, aldi baterako 30.000 m^2 okupatu behar dira. Okupazio hori, batez ere, baso-landaketetan, landetan eta kultibo atlantikoetan egingo da.

● 27 euskarrien ziamenduak egiteko, 400 m^3 lur mugitu beharko da.

● Sarbide berrietarako 2.057 m erabili beharko dira, eta, beste kasu batzuetan, lehendiko bideak egokitu edo segurtasun-kalea zelaitu beharko da.

● Landarediarekiko segurtasun-distantziari eusteko, lineak eragiten dien tarteetan arbolak moztu beharko dira. Mozketak egin behar direneko azalera 151.044 m^2-koa dela kalkulatu da, eta, batez ere, pinuzko baso-berritzeei eragingo die.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legeren testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuarekin bat etorriaz, aipatu arauaren II. eranskineko k epigrafeko 9. taldean jasotako proiektuak ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluaziotik pasa beharko dira, baldin eta kasu bakoitzean hala erabakitzen badu ingurumen-organoak, betiere bat etorriaz

aipatu legegintzako errege dekretuko III. eranskinean ezarritako irizpideekin, eta aldez aurretik kontsulta eginda proiektuak eragiten dien administrazio, pertsona eta erakundeei.

2012ko martxoaren 9an, ingurumen-organoak kontsulta egin zien proiektuaren eragina izango duten administrazio eta erakundeei, hain justu ere jarduera horiek ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura bete beharraz, eta, hala balitz, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak jaso beharreko edukiaz eta gutxieneko irismenaz.

Honako hauetatik erantzuna jaso da: Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza, Osasun Publikoko Gipuzkoako Zuzendariordetza, Osasun Publikoko Zuzendaritza, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza, denak ere Eusko Jaurlaritzakoak; Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza, Ihobe, S.A., Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Uraren Euskal Agentzia, eta Confederación Hidrográfica del Norte.

2012ko uztailaren 31n, ingurumen-organoak txostena eman zuen, zehazki, ondoren zehaztu proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioaren 1. fasea amaitzeko dena: Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2, 132 kV-ko linea elektrikoko arboladia moztu eta zortasuna aldatzekoa (linea berari eragiten dion beste aldaketa bat da).

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du ezen, proiektuaren eraginpean dagoen eremuan interes arkeologikoko elementu batzuk daudela, eta adierazi du beharrezko babes-neurriak ezarri beharko direla, baldin eta elementu horiei eragitea aurreikusten bada.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak iradokitzen du ezen birkontsideratu dadila 53. eta 56. euskarriak lekuz aldatzea, harizti mesotrofo baten azalera handia kentzea dakarrela-eta.

Eusko Jaurlaritzako osasun-agintaritzek emandako txostenak kontuan izanik, zera gomendatzen da: zuhurtasun-printzipioa aplikatuaz, ziurta dadila –inola ere– ez dela izango 10μT-tik (eremu elektrikoak eta magnetikoak) gorako esposiziorik, 15 urtetik beherako adingabekoak izaten diren lekuetan, hain justu ere asteko gutxienez egun batez 4 ordutik gorako esposizioa.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak egindako txostenean, jasotzen da ezen proiektuan zehaztutakoez aparte ez dagoela sailkatu edo inbentariaturiko beste kultura ondarerik, Kultura Ondarearen 7/1990 Legean ezarritako zehaztapenekin bat datorrenik. Ondareren izaera arkeologikoari dagokionez, zelan eta proiektuak eragiten baitie zenbait terrenori, non aski ezagutu gabeko kultura ondareak izan daitezkeen, ezinbestekotzat jotzen da lur-mugimenduen kontrol arkeologikoa egitea, halaxe proposatzen baita Ingurumen-dokumentuko 7.9 puntuan.

Confederación Hidrográfica del Cantábricok jakinarazi du ezen, beharrezko direla honako babespen- edo zuzentze-neurri osagarriak:

● Bide osagarrien trazaketak bazter utzi behar du ezein ibilgu aldatu edo kanalizatzea, ur-ibilguak nola gurutzatu ebazteko lubetak, zeharkako drainatzedunak, erabiltzea, eta, egitura bakar batez, iraunkorrak ez diren ur-ibilgu bat baino gehiagoren drainaketa kontzentratzea.

● Obrak egiten diren bitartean, ez dira lohituko ibaiko urak. Batez ere, ez dira egingo edo ez dira egokituko bide osagarrietako pasabideak, baldin eta –makinaria astunaren joan-etorriak direla-eta– urak uherrago egingo badira. Ez da botako ibaira material-hondakinik, eta ez da utziko halako hondakinik ibai-bazterretan.

● Jabari publiko hidraulikoan, ez da ezarriko erauzketetatiko material-hondakindegirik.

● Obrak egiten bitartean eta geroztik ere, erriberako landarediari ez eragiteko moduan gauzatuko dira instalazioak.

● Ibilguaren albo bietan, libre izan beharko da 5 metroko zortasun-zerrenda.

Jaso diren erantzunetatik ez da ondorioztatzen ingurumenari kalte adierazgarririk egingo zaionik eta, ondorioz, ez da beharrezkotzat jotzen proiektuak ingurumenaren gain izan lezakeen eragina ebaluatzea.

2012ko uztailaren 31n emandako txostenak amaiera eman zion ondoko proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko 1. faseari: Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2, 132 kV-ko linea elektrikoko arboladia mozteko eta zortasunak egokitzeko proiektua. Eta ingurumen-organoak adierazi zuen ezen, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean jaso egin behar direla: ebazpen honetan zehaztu euskarriak aldatzeko proiektuko arboladi-moztearen ondoriozko egintzak (Delako azterlana: Distribución Eléctrica, S.A.U.k egin beharrekoa, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurari jarraipena emateko).

Proiektuak ingurumenaren gainean izan dezakeen eragina neurtze aldera, eskura dagoen informazioa aztertu da. Azterketa hori egiteko, Proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskineko irizpideei heldu zaie. Azterketaren emaitza honako hau izan da:

Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektuaren zenbait ezaugarriri erreparatuz gero, hots, tamainari, baliabide naturalen erabilpenari, hondakinak egiteari, kutsadurari eta istripu-arriskuari erreparatuz gero, ikusten da ezen ezaugarri horiek ez direla garrantzizkoak eta ez diotela asko eragiten ingurumenari.

Beharrezkoa da arboladi-mozketari dagokionez zuhurtasunezko neurriak hartzea, kontuan izanik lineako zortasun-eremua aldatzeko aurreikuspena; izan ere, bukatua da-eta azken aldaketa horren ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioaren 1. fasea.

Proiektuaren kokapena.

Proiektuaren eraginpeko eremuan ez dago babestutako lekurik edo espaziorik.

Landarediaren gaineko eraginak, batez ere, honako kausa hauengatik izango dira: materialak pilatzeko eta euskarriak muntatu/desmontatzeko zelaietarako terrenoa prestatzea, sarbideak ireki edo egokitzea eta, indarreango araudiarekin bat datorren segurtasun-kalea egiteko, arboladia inaustea. Guztira 18 hektareari eragingo zaie, eta horietan, gehienbat pinu-landaketak daude.

Puntualki, interes naturalistiko handiko landaredi-guneei ere eragingo zaie; esate baterako, haltzadi kantabriarrari (91E0* lehentasunezko intereseko habitata), harizti azidofiloa, harizti-baso mistoa eta pagadia. Bidalitako dokumentazioak ez du zenbatzen, landarediko unitateka, eraginpeko azaleraren guztizkoa; aurkeztutako kartografiaren arabera, ez dirudi eraginpekoak azalera handiak izango direnik. Horretaz gain, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren arabera, 53. eta 56. euskarrien artean, linearen trazaketa berria irekitzeak badakar harizti mesotrofoaren azalera handia desegitea; eta, halaber, azpimarratzen da ezen proposatutako alienazioa berria bat datorrela Izarraitz/Aizkorri-Aratz eskualde-loturaren korridorearekin eta horren moteltze-eremuarekin –EAEko Korridore Ekologikoen Sarekoarekin–.

Azken baten, baliabide naturalistiko asko dituen ingurunean garatzen bada ere proiektua, kontsiderazten da ezen ebazpen honetan ezarri babespen- eta zuzentze-neurriek murriztu egiten dituztela hainbat kontrako eraginak. Horretaz gain, kontuan izan behar da ezen arboladi-

mozketaren ondoriozko inpaktua honako prozedura honetan ebaluatuko dela: lineako arboladia mozteko eta zortasuna egokitzeko proiektuari buruzkoan.

Proiektuak izan dezakeen eraginaren ezaugarriak.

Proiektuaren eta eragiten zaion ingurunearen ezaugarriak kontuan izanez gero, kontsideratzen da ezen proposatutako aldaketaren ondorioz izan daitezkeen inpaktuak ez direla handiak eta konplexuak, eta saihestu edo zuzendu daitezkeela sustatzaileak proposatu neurrien bidez eta ebazpen honetan ezarritakoen bidez. Ildo horretan, garrantzizkoa da 53. eta 56. euskarrien artean trazaketa-desbideraketarik ez egitea.

Hizpide dugun proiektuaren ezaugarriak ikusirik; Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskineko irizpideak kontuan harturik, eta kontsulta-izapidean jasotako erantzunak gogoan, ondoko hau ondorioztatu da: proiektuak ez du eragin kaltegarri adierazgarririk izango ingurumenaren gain, betiere, sustatzaileak adierazitako babespen- eta zuzentze-neurriak ezartzen badira, eta ebazpen honetan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrarekin bat etorriaz, horretako I.B eranskinean jaso gabeko jarduerak, zehazki, 5 ha eta 50 ha arteko azaleretan eginak izanik, lurra aprobetxatzeko era transformatzea eta arbolak edo zuhaixkak kentzea dakartzaten jarduerak pasatu egin behar dira ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazio sinplifikatuko prozeduratik (aipatu arauan erregulatutakoa).

Organo honek du ebazpen hau emateko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera.

Aintzat hartu dira Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1.– Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Antzuola, Bergara eta Elorrioko udal mugarteetan, Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2, 132 kV-ko linea elektrikoa aldatzeko proiektua, zehazki, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U.k sustatutakoa, ingurumen-inpaktua banan-banan ebaluatzeko prozeduratik ez pasatzea.

1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, proiektu honetan aurreikusitako arboladi-mozketak honako ekintza hauekin batera ebaluatu behar dira: proiektu honetan, zortasunak egokitzeko aurreikusitako arboladi-mozketak, eta lineako bertako arboladi-mozketak; betiere, aipatu proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko 1. fasea bukatzeko, Ingurumen-organoak 2012ko ekainaren 31n emandako txostenean xedatutakoarekin bat etorriaz.

2.– Proiektu hau gauzatzeko (ebazpen honen xedea), honako baldintza hauek bete beharko dira:

● Ebazpen honen aurka egiten ez bada, proiektuaren ingurumen-dokumentuan jasotako babespen-, zuzentze- eta –konpentsazio-neurriak aplikatu beharko dira.

● 53. eta 56. euskarrien artean, linea berregiteko ez da egingo honakoa: harizti mesotrofoa moztea; eta harizti horri ahalik eta gutxien eragiten dion alternatiba erabiliko da.

● Arriskupean diren floraguneak zehaztu eta lokalizatzeko azterlan zehatz bat egin beharko da; hain justu ere, beharrezko sarbideak irekitzeko eta mozketa gauzatzeko erreplanteatze-fasean, ez dakien eragin gune haiei. Halaber, obra-zuzendaritza aholkatzeko, obran bertan egon beharko du botanikan espezialista den pertsona batek.

● Obrak egin behar diren lekuetara sartzeko, ahal den neurrian, lehendik dauden bideak erabiliko dira, eta halakorik egon ezean, dagoen korridorea.

● Lanek ukitutako alde guztiak leheneratu egingo dira. Ingurumen-lehengoratzean sartuko dira lurraren berroneratze geomorfologikoa eta edafikoa, bai eta landare-estalkia izan dezaketen guneen landare-berritzea ere. Era berean, linean egindako aldaketak direla-eta desafektatuak geratzen diren eremuak ere leheneratu egingo dira; haietarikok dira, bestek beste, erabiltzen ez diren sarbideen azalerak.

● Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatutakoaren aurka jo gabe, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren iritzia jaso beharko da, hain justu ere eragin dakiekeen kultura ondareko elementuak babesteko neurriei dagokienez.

● Proiektuaren sustatzaileak honako hau ziurtatu beharko du: inola ere, ez dela izango 10μT-tik (eremu elektrikoak eta magnetikoak) gorako esposiziorik, 15 urtetik beherako adingabekoak izaten diren lekuetan, hain justu ere asteko gutxienez egun batez 4 ordutik gorako esposizioa.

● Bide osagarrien trazaketak bazter utzi behar du ezein ibilgu aldatu edo kanalizatzea, ur-ibilguak nola gurutzatu ebazteko lubetak, zeharkako drainatzedunak, erabiltzea, eta, egitura bakar batez, iraunkorrak ez diren ur-ibilgu bat baino gehiagoren drainaketa kontzentratzea.

● Obrak egiten diren bitartean, ez dira lohituko ibaiko urak. Batez ere, ez dira egingo edo ez dira egokituko bide osagarrietako pasabideak, baldin eta –makinaria astunaren joan-etorriak direla-eta– urak uherrago egingo badira. Ez da botako ibaira material-hondakinik, eta ez da utziko halako hondakinik ibai-bazterretan.

● Jabari publiko hidraulikoan, ez da ezarriko erauzketetatiko material-hondakindegirik.

● Obrak egiten bitartean eta geroztik ere, erriberako landarediari ez eragiteko moduan gauzatuko dira instalazioak.

● Ibilguaren albo bietan, libre izan beharko da 5 metroko zortasun-zerrenda.

3.– Proiektuari ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazio sinplifikatua egin beharko zaio, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 49. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, kontuan izanik ingurumen-inpaktuari buruzko beste prozedura baten ebaluatu beharko direla arbolak moztearen ondoriozko jarduerak, halaxe ezartzen baita ebazpen honetako 1. apartatuko 2. paragrafoan; behar ez dela ebaluazioak ez bikoiztearen printzipioa aplikatuko da, beraz jarduera horiek ez dira sartu beharko ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazio sinplifikatuan, baldin eta lehenago edo aldi berean ebaluatu badira.

4.– Ebazpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzari, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Antzuola, Bergara eta Elorrioko udalei eta proiektuaren sustatzaileari jakinaraziko zaie.

5.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

6.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 22a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.